

1/2014 akta

**OSATEK, SA SOZietate PubliKOAREN Administrazio Kontseiluak 2014KO
MARTXOAREN 20an EGINDAKO BILERAREN AKTA.**

Lehendakariak deituta Administrazio Kontseilua osatu da, Osatek, SA sozietateak Bilboko Bizkaia plaza eraikinean duen egoitzan, 2014ko martxoaren 20ko 16:00 orduetan. Jarraian adierazi dira bertaratu diren pertsonak eta aztertutako gai-zerrenda:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA

Guillermo Viñegra García jauna

KONTSEILUKIDEAK

Jon Etxeberria Cruz jauna

Ignacio J. Berraondo Zabalegui
jauna

Antonio Arraiza Armendáriz jauna

Pedro M^a Hernando Arranz jauna

Susana López Altuna andrea; bera izan da idazkaria.

Aipatutakoez gain, bileran bertaratu dira, hitzarekin baina botorik gabe, Enrique Gutiérrez jauna, zuzendari-kudeatzailea, Jesús Escauriaza jauna, zuzendari ekonomiko finantzarioa, eta Pedro Odriozola jauna, Osatek SA sozietatearen kontuen kanpoko auditoretza-enpresa den Betean, SAren auditorea.

GAI ZERRENDA:

1. Akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. 2013ko ekitaldia: jarduera eta itxiera ekonomikoa
3. Urteko kontuen formulazioa eta auditoretza-txostena
4. 2014ko aurreikuspenak
5. Zumarragako Ospitalean Erresonantzia Magnetikoko ekipo berri baten instalazioa
6. Galde-eskeak

Akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Aurreko bilerako akta irakurri eta onartu da.

2. 2013ko ekitaldia: jarduera eta itxiera ekonomikoa

Zuzendari kudeatzaileak 2013ko ekitaldian burututako jardueraren berri eman du:

Erresonantzia Magnetikoa:

- Paziente kop.: 83.999 (+ % 1,54 2012rekiko)
- Miaketa kop.: 109.025 (+ % 1,96 2012rekiko)
- Lan egindako txanda kop.: 6.126 (+ % 3,04 2012rekiko)
- Miaketa kop./txanda: 17,80 (- % 1,06 2012rekiko)
- Miaketa kop./pazientea: 1,29 (+ % 0,41 2012rekiko)
- Proba diagnostikoa egiteko itxarote-zerrendan dagoen paziente kop.: 3.582 (+% 2,31 2012rekiko)
- Proba diagnostikorako batez besteko itxarotea (paziente ambulatorioa): 18,39 egun (-% 30 2012rekiko)
- 7 egun baino gutxiagotan egindako txostenen % (paziente ambulatorioa): % 90,99 (% 88,06 2012an)
- 24 ordu baino gutxiagotan egindako proben % (ospitaleratutako pazienteak): % 93,92 (% 85,58 2012an)
- 72 ordu baino gutxiagotan egindako txostenen % (ospitaleratutako pazienteak): % 98,33 (% 98,18 2012an)

Telelaguntza Zerbitzu Publikoa (betiON)

- Erabiltzaile kop. 2013.12.31n: 30.393 (+ % 11,37 2012rekiko)
- Erabiltzaileen hazkunde garbia/hilean: 259 (-% 4,42 2012rekiko)
- Estaldura 65 urtetik gorako pertsonekin: % 6,99 (% 6,3 2012an)
- Ahots-deien kop./egunean: 2.773 (+% 13,64 2012rekiko)
- Autotxekeo kop. ekipoak/egunean: 3.921 (+% 100 2012rekiko)
- Desbideratzerik gabe erantzundako deien %: % 87,33 (% 91,93 2012an)
- Osasun Aholkura egindako desbideratze kop.: 1.390 (+% 39,69 2012rekiko)
- Osakidetzako Ordua Eskatzera egindako desbideratze kop.: 697 (+% 68,7 2012rekiko)
- Erabiltzailearen Kontaktuetara egindako desbideratze kop.: 698 (+% 36,06 2012rekiko)
- SOS Deiak-era egindako desbideratze kop.: 100 (+% 17,39 2012rekiko)
- betiON Unitate Mugikorrera egindako desbideratze kop.: 158 (+% 5,33 2012rekiko)
- Batez besteko erantzun-denbora/deia: 5,88 seg. (-% 3,28 2012rekiko)

Osarean:

2013ko ekitaldian hauek izan dira proiektuaren alderdi garrantzitsuak:

- Web-ataria: Mantentzea eta eguneratzea, herritarrak sartzeko profilean barne hartzen diren eduki berrien arabera.
- Ordua Hartzea eta bertaratu gabeko kontsultak Lehen Arretan: Ordua hartzeko eta bertaratu gabeko kontsulten sistemen mantentzea. Ordua hartzeko Call Centre-a bateratzea.
- Osasun-aholkua: Web-protokoloak eta erabaki-zuhaitzak mantentzea zerbitzua telefonoz eskaintzen duten erizaintzako profesionalentzat. Osasun-aholkuaren plataforma CRM tresnarekin bateratzea.
- Paziente kronikoari arreta: Pazientearen arretarako programak parametrizatzea CRM plataforman.
- Osasuneko Karpeta Pertsonala: Osasuneko karpetaren lehen bertsioa zabaltzea.

2013ko ekitaldiko itxiera ekonomikoari buruzko informazioa gai-zerrendako hurrengo puntuan barne hartuta dago.

3. Urteko kontuen formulazioa eta auditoretza-txostena

Kanpo-auditoreak adierazi duenez, egin den urteko kontuen auditoretzaren arabera, aipatutako kontuek enpresaren egoera modu zehatzean islatzen dute eta bereziki azpimarratu du Osakidetza-erakunde eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekiko eta Gizarte Gaien Sailarekiko mendetasun-erlazio esanguratsua.

Azalpena eman ondoren, bileratik irten da, kontseilukideei beren parte-hartzea eskertu eta gero.

Jarraian, zuzendari ekonomikoak aipatutako kontuen eta itxiera ekonomikoaren daturik esanguratsuenen berri eman du:

3.1. 2013ko egoera-balantzea:

Aktiboa guztira (korrontea eta ez-korronte): 13.529.013

Ondare garbia + pasiboa: 13.529.013

3.2. 2013ko G eta I-en kontua:

68.359 euroko mozkin

3.3. Memoria:

Emitzen banaketa

Banaketa-oinarria: Galerak eta Irabaziak: 68.359

Ibilgetu materiala:

Amaierako balio garbia: 5.129.494

Ibilgetu ukiezina:

Amaierako balio garbia: 21.796

Zerbitzua eskaintzea:

EM: 14.082.547

Telelaguntza: 5.723.850

Osarean: 1.545.575

Guztira: 21.351.972

Plantilla finkoa guztira 2013/12/31n: 116

Hornitzaileen ordainketa atzeratuak:

Ekitaldiko ordainketak guztira: 13.005.179

Itxiera-datan legeak ezarritako gehienezkoa gainditzen duten atzerapenak: 187.964

PMPE: 45

3.4. Kudeaketa Txostena:

Irudi bidezko diagnostikoa:

- 2013an guztira 83.999 paziente artatu dira, hau da, 2012ko datuekiko % 1,54ko hazkundera ezagutu da.
- 2013an guztira 109.025 miaketa egin dira, hau da, 2012ko datuekiko % 1,96ko hazkundera ezagutu da.

Osarean:

2013ko abenduan amaitu da Osaeran proiektua, Osatek-ek egin beharreko kontratazioaren faseari dagokionez. Aldi horretan garatutako jarduera nagusiak Osatek/EABE kontratua amaitzeko egiteke dauden zerbitzuen azken bertsioen hedapenak egitera bideratu dira nagusiki. Bestalde, plataforma teknologikoa osatzen duten tresnak Osakidetza Informatika Zuzendariordeztara transferitzeko ere lan egin da.

Gizarte Telelaguntza (Befion):

2013ko abenduaren 31n 30.393 pertsonari eskaini zaie zerbitzua, hau da, 2012ko itxieran izandako datuekiko % 11ko hazkundera ezagutu da.

Ekipamendu berriak:

Areilza doktorearen 1.0T EM ekipoa 1.5T ekipoa batengatik ordezkatu da; bestalde, Donostian eta Gasteizen EMko bi ekipoa eguneratu dira eta hainbat unitatetako osagaiak (harilak eta softwarea) gehitu dira.

Kalitatea kudeatzea

- ISO 9001:2008 ziurtagiria: berritzaia
- ISO 14001:2004 ziurtagiria: berritzaia.
- Ekoscan Arauaren ziurtagiria: Berritzaia.

Aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartuta eta 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren, uztailaren 2koa eta Kapital Sozietateen legeari buruzko testu bategina onartzeko denaren 253. artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazio Kontseiluak honako hau erabaki du:

"Lehenengoa: Sozietatearen 2013ko Urteko Kontuen formulazioa eta 2013ko Kudeaketa Txostena onartzea. Kontseiluan bertaratu diren kide guztiek sinatu dute, beren adostasuna erakusteko.

Bigarrena: Aipatutako Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostena eta dagokion 2013ko ekitaldian Emaitzak Banatzeko Proposamena Sozietatearen Akziodunen Batzar

Orokorri jakinaraztea, Kontseiluan aurkeztu diren terminoetan, eta horiek onartzeko proposatzea".

4. 2014ko aurreikuspenak

2014ko ekitaldian Erresonantzia Magnetikoko probak egiteko Hitzarmen Arauemailea berritzeko Osakidetzarekin egiten ari diren izapideen berri eta Euskadin Telelaguntza Zerbitzu Publikoaren funtzionamendurako Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren Kudeatzeko Gomendioaren berri eman die Zuzendari kudeatzaileak Administrazio Kontseiluko kideei.

Administrazio Kontseiluak adierazi du kontuak, auditoretza-txostenaren formatuan aurkezteaz gain, Ogasun Sailak erabiltzen duen formatuan (aurrekontu-kontabilitatearen eta Europako kontuen sistemaren formatua) aurkeztu beharko lirakekeela.

2014ko ekitaldirako eta etorkizuneko urteetarako eszenategiei buruz hausnartu eta gero, eta kontuan hartuta defizit publikoari buruzko araudia eta ustiapen-kontu onbideratu bat edukitzeko beharra, Administrazio Kontseiluak bideragarritasun-azterketa bat eskatzea erabaki du, horren bitartez, gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenak baloratzeari gain, inbertsio-beharrak eta Sozietatearen epe luzearako iraunkortasuna lortzeko aukerak baloratzeko, gaur egungo erreserbak eta horiek erabiltzeko aukerak barne hartuta.

5. Zumarragako Ospitalean Erresonantzia Magnetikoko ekipo berri baten instalazioa


Laguntza-beharrak eta aurrekontuko baliabideak aztertu eta gero, Administrazio Kontseiluak baimena eman dio zuzendari kudeatzaileari Zumarragako Ospitalean instalatuko den Erresonantzia Magnetikoko ekipo bat erosteko.

Administrazio Kontseiluak, kostu-aukerako arrazoiak kontuan hartuta, zuzendari kudeatzaileari eskatu dio administrazio-prozedura bateratu bat egiteko aipatutako ekipamendu berria erosteko eta Donostiako Ospitalean Kontseilu honek alde aurretik onartu duen eta jada aurreikusita dagoen Erresonantzia Magnetikoko ekipoa ordezkatzeko.


6. Galde-eskeak

Administrazio Kontseiluko lehendakariak, Guillermo Viñegra García jaunak, Kontseiluari jakinarazi dio Lourdes Moreno andreak bere borondatez uko egin diola kontseilukide izateari eta horretarako aurkeztutako eskaeraren harrera ofiziala egin dela. Era berean, uko-egitea Akziodunen Batzar Orokorrean bidaliko dela jakinarazi du, bertan berresteko.

Aztertzeko gai gehiagorik ezean, amaitutzat jo da Kontseiluaren bilera adierazitako eguneko 18:00etan.



IDAZKARIA
Sin.: Susana López Altuna
García



LEHENDAKARIA
Sin.: Guillermo Viñegra